

KANPAINARAKO GAZTEENTZAKO OINARRIZKO ESKULIBURUA

“Zeugan dago ALDAKETAREN GILTZARRIA”

1.- Sarrera (oinarriak).

- Modu konprometitan bizitzea, ebanjelioaren arabera, munduan izateko eta egoteko modu bat da, Nazareteko Jesus erreferentetzat hartuta; hau da, bizitzaren erdigunean Jesus bere bizitza gurutzeraino ematera eraman zuen arrazoi berbera jartzea: Gizaki guztienganako eta planetarekiko maitasuna, beti eta leku guztietan.
- Konpromisoak bihotza zabaltzea eskatzen du, interpelatzen gaituen errealitateak eraldatu gaitzan.
- Gure ekintza konpromiso bihurtzeko; gure konpromisoa, jarrera; gure jarrera, bizitza; gure bizitza, eraldaketa eta gure eraldaketak mundua hobetu dezan. Bideak proposatzea gure bizi-estiloa, gure jarduteko modua, errealitateak eskatzen digunera egokitzeke.
- Eraldaketa lana egiteko, gu geu ere eraldatu egin behar gara “Ez egokitu mundu honen iritzietara, eraberri zaitetze baizik, zuen pentsaera aldatuz; horrela bereizi ahal izango duzue zer den Jainkoak nahi duena, zer den ona, atsegingarri zaiona eta bikaina” (Erromatarrak 12, 1-2)

2.- Bideoa.

Motibazioa pizteko bideo hau ikusiko dugu, errealitatean geure burua kokatzeko moduaren inguruko hausnarketa egiteko.

<https://www.youtube.com/watch?v=fTcgFkaoZHK> Zein mundutan bizi zara?

3.- Abestia

Bideoari buruzko hausnarketan laguntzeko, honako abestia entzutea proposatzen dugu:
ZAPALDUEN OLERKIA. Ken zazpi

<https://www.youtube.com/watch?v=AriGyGQh3jY>

Herri ikustezin hontan
itzalekin jolasten
neu izaten saitzen
geroa margozten
nire ezintasun denak
behin da berriz kantatzen
egunsentia
bide hau sentitzen

Denok ez dugu berdin
kontatzen istoria
zaila da ulertzea
bestearen egia
baina kantatu nahi dut
zapalduen olerkia
estalita duten
samin guzti
ohe hutsei amaren malkoei
lapurtzen diguten denbora
iheskorrari
burdin hotsei aitaren beldurrei
sufritzen dugunoi

Txikitatik entzuten
zer izan behar garen
indarrez inposatuz
zer maitatu behar den
baina kantatu nahi dut
zapalduen olerkia
estalita duten
samin guztia
lagun minei bakardadeari
bizigabe utzitako
une bakoitzari
izan zirenei
gaur gareneri

izango direnei
esaidazu maitea
dena aldatuko dela
bihar ere nirekin egongo zarela
eta ondorengoek
ez dutela sekula kantu hau
kantatuko
malkorik botako esan maitea
esan laztana
entzun nahi dudana
esan laguna

Istripuei
berri txarrei
bidean galdu ditugun lagun
guztiei
gugatik dena eman dutenei
askatasun haizeari
zuei
haizeari
zuei, zuei, zuei

4.- Dinamika

Dinamika honen helburua gazte talde bat kontzientziatzea da, mundu hobe bat eraikitzeko konpromisoan aurrera egiteko. Horretarako, errealitatearen azterketa labur bat egin eta errealitate horrek zertara garamatzen pentsatu behar dute, zer konpromiso hartzera.

Munduaren Gurutzea

Talde txikitan banatuko gara. Talde bakoitzari orri bat eta errotulagailuak emango dizkiogu (margo arruntek ez dute balio). Beren hiri, herri edo komunitateko errealitatea aztertu eta marrazki baten bidez adierazteko eskatuko diegu. Hitz, mezu, eslogan, argazki eta abarren bidez ere adieraz dezakete. Arrazoizko denbora tarte bat pasata, talde bakoitzeko ordezkariak beren kartelak erakutsi eta komentatuko dituzte. Orri bakoitza lurrean jarri eta guztien artean gurutzea osatuz joango dira. Animatzaileak esango du hori munduaren gurutzea dela, bere arazo, injustizia, min eta abarrekin, eta gure esku dagoela errealitate hori aldatzea, neurri batean; baina, horretarako, errealitateak ukitu egin behar gaituela; aldatu nahi dugula sentitu behar dugu. Zerk bultzatzen nau errealitate hori aldatzera? Parte-hartzaile bakoitzak aldaketa pertsonalaren konpromisoa jasoko du orri bakoitzaren atzeko aldean (orriei buelta eman, baina gurutzea osatuz oraindik ere). Parte-hartzaileek banan-banan idatziko dute euren konpromisoa. Ondoren, animatzaileak komentatuko du orain gurutzea desberdin ikusten dela, asmo onez betea; baina, hala ere, arazoak hor daudela (esan egindako marrazkiak nabaritu egiten direla orrian zehar -horregatik da garrantzitsua errotuladorez egitea-), eta beharrezkoa dela hartutako konpromisoak betetzea, gauzak benetan aldatzeko.

5.- Otoitza.

Bideoko sentrazioak, abestiaren proposamena eta dinamikaren emaitza jasoko ditugu, gure otoitzerako.

Gaur, Jauna, ohartu naiz ez dudala denbora ahal beste aprobetxatu.

Batzuetan, nire gauzetan

Oso murgilduta egon naiz,

Beste batzuetan, despistatuta.

Bestetan, nire lagunekin liatuta.

Hau da, ez naizela ohartu

Benetan garrantzitsuak diren gauzez.

Gaur, indarra eskatu nahi dizut,

Erlojuaren orratzen

Zentzua aldatzeko,

Nigatik egin duzunaz ohartzeko

Eta nire bizitzan duzun garrantziaz.

Nire akatsak, penak, berekoikeriak alde batera utzi nahi ditut,

eta besteentzat lan egiteko bihotz handia izan,

zuk guretzat egiten duzun moduan.

6.- Ekintza proposamena.

Zer egin dezakegu? Zein aukera ditugu mundu bidezkoago bat sortzeko? Non eta nola hartuko dugu konpromisoa?

Dekalogo bat proposatu nahi dizuegu (parte-hartzaile bakoitzari emango zaio), pista batzuk emateko.

Beste zerbait gehitu nahi duten galdetu daiteke. Konpromisoetako bat ala bi hautatu eta ekintza baten bidez zehaztu.

7.- Itxiera

Pertsona bakoitzari galdetu ahal zaio: Labur-labur esan, zer ekarpen egin dizu topaketa honek? Eta abestia berriz entzun edo berriz ere otoitza denon artean irakur dezakegu.



DEKALOGO BERDEA



1 Izan solidarioa, batez ere, zuk baino gutxiago daukatenekin.



2 Ikasi gauza on eta xumeak baloratzen. Konturatuko zara oso gutxi behar dela zoriontsu izateko eta ondokoak zoriontsu egiteko.



3 Pentsatu egunero zer aldaketa txiki egin dezakezun zure ingurua zaintzeko, eta saiatu betetzen.



4 Erreparatu gure inguruan dugun animalia eta landare aniztasunari, eta gozatu. Izaki guztiok gaude konektatuta eta elkarren beharra dugu.



5 Animatu zure familia, lagunak eta ikastetxeko jendea ingurumenarekin eta pertsona pobreen aldeko konpromisoa hartzera.



6 Izan arduratsua eta hartu konpromisoa. Hori da urratsik zailena eta garrantzitsuena.



7 Zure inguruko pertsona helduei ikusarazi dirua ez dela garrantzitsuena, gure lehentasuna gizakiak eta planeta zaintzea izan behar dela.



8 Bilatu Ebanjelioan nola egiten zuen Jesusek harremana beste pertsonekin, izaki bizidunekin eta naturarekin, eta saiatu bere ereduari jarraitzen.



9 Ikasi nola zaindu denon etxea, gure planeta.



10 Ohartu zaitetz garrantzitsuena pertsonak direla eta ulertu ezazu dena ezin dela zientzia edo teknologiaren bidez konpondu.